

ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINTZA Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

2023-2024 denboraldia
(2023/10/02tik 2024/09/29ra)

49. astea (2023/12/04-2023/12/10)

COVID-19aren intzidentziak gora egin du berriro aste honetan, baita ospitaleetako gripe-birusaren eta ABSren detekzioek ere.


- ***Aste honek bi jaiegun dauzka, eta honek eragin zuzena du datuen baliozkotasunean, bereziki Lehen Mailako Arretatik jasotako datuetan, bai zaintza sindromikoan zein jagolean.***
- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 350,8 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (487,0/100.000 aurreko astean).
- Lehen Mailako Arretan, gripe-sindromearen eta bronkiolitisaren tasek behera egin dute, ziurrenik aipaturiko jai egunak direla eta; horregatik, hurrengo asteetako datuak beharko dira benetako joerak zeintzuk diren ikusi ahal izateko
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 25 lagin jagoleen % 72,0 baieztatu da, 2 SARS-CoV-2 (positibotasuna % 8,0), 7 gripe-birus (positibotasuna % 28,0) eta 4 ABS (positibotasuna % 16,0) atzeman direlarik. 6 errinobirus ere detektatu dira (positibotasuna % 24,0).
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 18,7 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (17,3/100.000 aurreko astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sistematan, aste honetan, 184 SARS-CoV-2, 297 gripe-birus eta 259 ABS erregistratu dira.

AIA Lehen Mailako Arretan

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen esker, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 350,8 kasukoa izan da (487,0/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 241,0/100.000 izan da Araban, 352,2/100.000 Bizkaian eta 399,2/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arreta-sarea. 2023-2024, EAE



Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena 0-4 urtekoen adin-taldean eman da 2114,4 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5-14 urtekoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 547 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek behera egin dute adin-talde guztietan.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek behera egin dute ere ESI guztietan aurreko astearekin alderatuta.


AIAREN intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE

ESI	Tasa 49. astea	Tasa 48. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	260,6	403,6	0,65 (0,59-0,71)
Arabar Errioxako ESI	468,6	724,3	0,65 (0,46-0,91)
Barakaldo-Sestaoko ESI	260,0	382,8	0,68 (0,59-0,78)
Barrualde-Galdakaoko ESI	380,5	488,8	0,78 (0,72-0,84)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	378,3	507,8	0,74 (0,69-0,80)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	383,4	555,8	0,69 (0,62-0,76)
Uribeko ESI	275,2	420,2	0,66 (0,59-0,72)
Bidasoako ESI	382,9	529,6	0,72 (0,62-0,84)
Debararrenako ESI	414,3	555,2	0,75 (0,64-0,87)
Debagoienako ESI	287,7	437,8	0,66 (0,55-0,79)
Donostialdeako ESI	371,6	503,2	0,74 (0,69-0,79)
Goierrri-Urola Garaiako ESI	483,8	624,9	0,77 (0,69-0,87)
Tolosaldeako ESI	429,4	577,2	0,74 (0,64-0,87)

Gripe-sindromearen tasak behera egin du eta aste honetan 10,2 kasu 100.000 biztanleko balioan kokatu da (12,2/100.000 aurreko astean).

Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) behera egin du ere eta 918,5 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (1521,7/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAREN sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIARako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 25 lagin jagole aztertu dira bakarrik eta horietatik % 72,0 baieztatu dira. 2 SARS-CoV-2, 7 gripe-birus (5 AH1pdm09 eta 2 AH3) eta 4 ABS atzeman dira. 6 errinobirus ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2023-2024, EAE



Aste honetan jasotako lagin urriek lortutako positibotasunak zuhurtziaz interpretatzera behartzen dute. SARS-CoV-2aren positibotasuna % 8,0ko balioan kokatu da (% 5,0 aurreko astean). Gripe-birusaren positibotasuna % 28,0ra igo da (% 15,0 aurreko astean) eta ABSrena % 16,0koa izan da (% 18,3 aurreko astean). Errinobirusaren positibotasuna % 24,0koa izan da (% 25,0 aurreko astean).

Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2023-2024, EAE


	49. astea		48. astea		2023-2024 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	7	28,0	9	15,0	38	8,5
SARS-CoV-2	2	8,0	3	5,0	33	7,3
ABS	4	16,0	11	18,3	55	12,2
Metaneumobirus	0	0,0	0	0,0	3	0,7
Parainfluenza	1	4,0	1	1,7	16	3,6
Adenobirus	0	0,0	2	3,3	12	2,7
Errinobirus	6	24,0	15	25,0	137	30,5
Urtaroko CoV	0	0,0	4	6,7	14	3,1

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean

Zaintza sindromikoa


AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratorzen direnak. AIAL tasa 18,7 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (17,3/100.000 aurreko astean), 17,1/100.000 emakumeetan eta 20,5/100.000 gizonetan.

AIAL tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE



Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 5 urtetik beherakoen adin-taldean eman da, 70,7 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 64 urtetik gorakoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 49,7 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek gora egin dute 44 urtetik gorakoetan eta behera besteetan, bereziki 5 urtetik beherakoetan.

AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. SARS-CoV-2ren positibotasuna % 11,4raino igo da aste honetan, baita gripe-birusarena ere (% 12,2). ABSren positibotasuna, ordea, % 28,9ra jaitsi da eta errinobirusarena % 25,0koa izan da.

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE

	49. astea		48. astea		2023-2024 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	307	11,4	272	9,6	2091	12,2
Influenza	294	12,2	237	11,0	1816	7,8
ABS	253	28,9	207	40,6	1451	23,8

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, CAE




Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 184 SARS-CoV-2, 297 gripe-birus eta 259 ABS detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 297 gripe-birusetatik, 207 azpitipatu gabeko A motakoak izan dira, 22 A(H3), 65 A(H1)pdm09 eta 3 B motakoak. 2023/40 astetik 836 detekzio erregistratu dira, 826 (% 98,8) A motakoak eta 10 (% 1,2) B motakoak. Azpitipatutako A motako 231 birusetatik, 40 (% 17,3) A(H3) eta 191 (% 82,7) A(H1)pdm09 izan dira.

Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko Mikrobiologia Zerbitzuen datuen arabera, azaroan, PCR bidez azterturiko SARS-CoV-2ren lagin positiboan % 33,9 sekuentziatu dira orain arte. Guztiak Omikron aldaerakoak izan dira, leinu ohikoenak JN.1 (% 23,3), EG.5.1 (% 14,4), JD.1.1 (% 13,0) eta BA.2.86 (% 12,3) izan direlarik.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2023-2024, EAE




COVID-19aren egoera

60 urte edo gehiagoko populazioan, 49. astean, COVID-19aren 7 eguneko intzidentzia-tasa 19,6 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (14,1/100.000 aurreko astean); 23,1 gizonetan eta 16,8 emakumeetan.

Osakidetzaren ospitale-egoeraren adierazleetatik lortutako datuen arabera, aste honetan 65 paziente ospitaleratu dira EAEn COVID-19agatik¹ (49 ospitaleratu aurreko astean), 37 gizon eta 28 emakume. Honela, lau astez jarraian igo da ospitaleratzeen kopurua. Ospitaleratutako pertsonen % 83,7 60 urtetik gorakoa zen.

COVID-19agatik gertaturiko ospitaleratzeen kopurua eta tasa, aste epidemiologikoaren eta adinaren arabera. 2023-2024, EAE



¹ Txostenaren argitaratze datako behin behineko datuak

Urteko 49. astean, COVID-19 16 kasu berri erregistratu dira EAEko adinekoen egoitzetako erabiltzaileen artean (6 aurreko astean). Kasuak dituzten zentro soziosanitario kopurua 15 izan da, aurreko astean baino 10 gehiago.

Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripea), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB)

2023ko abenduaren 13an

**Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza**